

Erabilera bikoitzeko esportazioen kontrola egiaztatzeko ibilbide-orria

2026aren urtarrilak 16 (1. berrik.)

Basque Trade &
Investment-ek
lankidetzan egindako
txostena:





Aurkibidea

1-	Sarrera.....	3
2-	Produktuaren identifikazioa	3
3-	Produktua egiaztatzea	4
4.-	Produktuaren helmugako herrialdearen egiaztapena	6
4.1.	Israel	7
5-	Produktuaren erabileraren eta amaierako erabiltzailearen egiaztapena	9
6-	<i>Catch-all</i> Klausularen egiaztapena	10
7-	Esportazioaren kudeaketa	11
8-	Erabilera bikoitzeko esportazioaren lizentzia eskatzea	12
9-	Kontuan izan beharreko beste alderdi batzuk	13

1- Sarrera

Erabilera bikoitzeko produktuen esportazioa (hau da, erabilera zibila zein militarra duten ondasunak, softwarea eta teknologia) Europar Batasunean araudi honen bitartez erregulatzen da batez ere:

♦ 2021eko maiatzaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2021/821 Erregelamendua.

Dokumentu hau gida bat da, enpresek aukera izan dezaten produktu baten esportazioak erabilera bikoitzeko lizentziaren eskaera behar izango duen edo ez zehazteko, eta, beharrezkoa izatekotan, nola ekin eskatzeari.

2- Produktuaren identifikazioa

Produktu baten esportazioak erabilera bikoitzeko lizentzia eskatuko duen ala ez zehazteko lehen pausoa produktua bera ondo identifikatzea da.

Garrantzitsua da jakitea:

- Muga-zergen partida
- Informazio teknikoa: fitxa teknikoa, zehaztapenak, osagarriak, erantsitako softwarea, etab.
- Tipologia: ekoitzi beharreko produktua, bitarteko produktua, produktu amaitua
- Azken erabilera



3- Produktua egiaztatzea

3.1 Muga-zeren partida kontsultatzea

Behin ondo zehaztuta produktuaren muga-zeren sailkapena, garrantzitsua da Batzordearen webgunean begiratzea sailkapen horri erantsitako esportazio-irizpideak.

Partida Erregelamenduaren I. eranskinean jasoia egon badaiteke, orri honetan eskuratuko dugu erabilera bikoitzeko Footnote kodea (esaterako, DU116, DU565, DU566, DU702, etab.).

https://ec.europa.eu/taxation_customs/dds2/taric/taric_consultation.jsp?Lang=es

Medidas

Información geográfica

Reglamentos

Búsqueda por código y por área

Código de las mercancías [\[Explorar la nomenclatura\]](#)

845730

Origen/Destino

Japón - JP

Additional code

[\[Busqueda avanzada\]](#)

Hallar medidas

8457 30 - Máquinas de puestos múltiples :

8457 30 10 ▼ - - De control numérico

[ERGA OMNES \(ERGA OMNES 1011\)](#)

→| Control a la importación (03-04-2017 -) (CD989) (DU116) (DU565) (DU566) (DU702)

Excepto Irán, República islámica de (IR)

[\[Mostrar las condiciones\]](#)

→| Derecho terceros países (01-01-2005 -) : **2.70 %**

[Japón \(JP\)](#)

→| Preferencias arancelarias (01-02-2020 -) : **0 %**

[Todos los terceros países \(ALLTC 1008\)](#)

←| Autorización a la exportación (Doble uso) (08-11-2024 -) (CD464) (DU116) (DU565) (DU566) (DU702)



Oin-ohar horiek lotura dute I. eranskinean DUAL USE CORRELATION TABLE taulan produktuak sailkatu daitezkeen kategoriarekin. Horrela, aukera izango dugu produktuaren muga-zergen sailkapenari lotutako kodifikazio zehatza begiratzeko.

<https://circabc.europa.eu/ui/group/0e5f18c2-4b2f-42e9-aed4-dfe50ae1263b/library/c3d06bd7-6ef0-4771-bbd7-f92b976ae9a0>

CN Codes 2025	TARIC Footnote	Dual Use Codification
8457200000	DU565	2B201a
8457200000	DU566	2B201b
8457200000	DU702	2B201c
8457301000	DU116	2B001b
8457301000	DU565	2B201a
8457301000	DU566	2B201b
8457301000	DU702	2B201c

3.2 Begiratu 2021/821 (EB) Erregelamenduaren I. eranskina

2021/821 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinak erabilera bikoitzeko produktuen zerrenda jasotzen du.

Eranskina kategorien arabera dago antolatuta (Otik 9ra), eta azpikategoria teknikoetan banatuta.

Parte I -	Notas generales, acrónimos y abreviaturas, y definiciones
Parte II - Categoría 0	Materiales, instalaciones y equipos nucleares
Parte III - Categoría 1	Materiales especiales y equipos conexos
Parte IV - Categoría 2	Tratamiento de los materiales
Parte V - Categoría 3	Electrónica
Parte VI - Categoría 4	Ordenadores
Parte VII - Categoría 5	Telecomunicaciones y "seguridad de la información"
Parte VIII - Categoría 6	Sensores y láseres
Parte IX - Categoría 7	Navegación y aviónica
Parte X - Categoría 8	Marina
Parte XI - Categoría 9	Aeronáutica y propulsión

Aurreko atalean aipatu moduan, sarrera bakoitzak kode alfanumeriko bat du (esaterako, 3A001, 5A002, 2B350...), eta kodifikazio hori nazioartean ingeleseko siglekin da ezaguna: ECCN - Export Control Classification Number.



Berrikusi egin beharko dira produktuaren kodifikazio zehatz bakoitzean jasotako zehaztapenak.

- Zehaztapen tekniko horiek bat badatoz, kasu batzuetan esportatu nahi den produktuarekin, beharrezkoa izango da kontrola, baita esportazio-lizentzia eskatzea ere.
- Kointzidentziak aurkitzen ez baditugu, produktua ez izango da erabilera bikoitzeko produktu bat, baina komenigarria izango litzateke egiaztapenak egiten jarraitzea.


4.- Produktuaren helmugako herrialdearen egiaztapena

Horrelako eragiketetan helmugako herrialdea funtsezko alderdia da esportazioen kontrolerako. Nahiz eta produktua ez egon jasota 2021/821 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean, esportazio-kontrola eskatu daiteke egoera hauetan: arrisku geopolitikoak, militarrek edo segurtasunezkoak badaude, edo herrialdea blokeoak, nazioarteko zehapenak edo berariazko kontrol-neurriak jasaten ari bada.

Murrizketa horiek kontuan izan gabe esportatzeak zehapen administratiboak edo penalak ekar ditzake, baita produktua erabilera bikoitzekoa ez denean ere.

Beraz, I. eranskinean deskribatutako produktu guztiek lizentzia behar duten arren, batzuetan jasota ez dauden produktuek ere eskatu dezake, helmugako herrialdearen arabera.

Horregatik, ezinbestekoa da egiaztatzea helmugako herrialdearen arabera aplikatzekoak diren zehapenak edo murriztapenak dauden, horretarako tresnak erabilita; zehapenen bilatzaileak, esaterako, aukera ematen du herrialde bakoitzaren berariazko egoera egiaztatzeko.



<https://www.sanctionsmap.eu/#/main>



Herrialdearen arabera bilaketa: Japonia

REGIMES, PERSONS, ENTITIES

No results found

PDF

Herrialdearen arabera bilaketa: Iran

☐	Country or Category	Specification (Type)	Adopted by	Restrictive measures	List	Legal acts	Guid...
☐	Iran	Restrictive measures in relation to serious human rights violations in Iran (HR)	EU				
☐	Iran	Restrictive measures in relation to the non-proliferation of weapons of mass destruction (WMD)	UN and EU				
☐	Iran	Restrictive measures in view of Iran's military support to Russia's war of aggression against Ukraine and to armed groups and entities in the Middle East and the Red Sea region (UAV)	EU				

4.1. Israel

2025eko irailaren 23an, Espainiako Gobernuak [10/2025 Errege Lege Dekretua](#) onartu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen, "Gazako genozidioaren aurkako eta palestinarrei laguntzeko premiazko neurriak hartzen dituen". Dekretu horrek debekatu egiten du Israeli zuzendutako defentsa-materiala saltzea, erostea eta igarotzea. Era berean, azken erabilera militarra izan dezaketen erregaiak Israelera igarotzeko baimen-eskaerak eragozten ditu, eta debekatu egiten du Israelen lurralde okupatuetan dituen asentamenduetatik datozen produktuak inportatzea. Hala ere, Ministroen Kontseiluak baimendutako salbuespen puntualak aurreikusten ditu arauak, interes nazionalen arrazoiak daudenean. Zehazkiago:

- 1. artikulua defentsa-materiala, beste material batzuk eta erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak transferitzeko debekua arautzen du. Horren ondorioz, debekatuta daude Israelera bideratutako esportazioak eta Israeletik etorritako inportazioak, abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretuak onartutako defentsa-materialaren, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamenduaren eranskinetan jasotako materialri dagozkionak. Gainera, material hori igarotzeko baimen-eskaerak ukatu egingo dira.



- Bestalde, 2. artikulua Israelerako erabilera militarreko erregaien arloko neurriak jorratzen ditu. Zehazki, azken erabilera militarra izan dezaketen erregaiak Israelera igarotzeko baimen-eskaerak ukatuko dira.
- Lehen xedapen gehigarriak Ministro Kontseiluak errege lege-dekretuaren 1. artikuluan jasotako transferentziak salbuespenez baimentzea aurreikusten du.
- Xedapen iragankor bakarrak arauan aurreikusitako neurriak atzeraeraginez aplikatzea aurreikusten du, eskatutako edo jada indarrean dauden baimenen kasuetan.

Horregatik, beharrezkoa da estatu kide bakoitzaren balizko murrizketak kontuan hartzea, EU Sanction Map webgunean jasota egon ez daitezkeenak. Espainiak ez ezik, EBko beste herrialde batzuek ere hainbat neurri hartu dituzte Israeli armak esportatzeari dagokionez:

- **Eslovenia:** 2025eko uztailaren 31n iragarritako enbargo integrala (inportazioa, esportazioa eta igarotzea).
- **Belgika:** neurri zehatzak eskualdeetako gobernuetatik datoz:
 - **Flandes:** Israelerako armen esportazioen aldi baterako etendura, 2025eko urriaren 15etik indarrean dagoena
- **Herbehereak:** 2024ko otsailean, Hagako Apelazio Auzitegiak Israelera bideratutako F-35 ehizako osagaien esportazioa eteteko agindu zion Gobernuari, Gazan nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzeko erabil zitezkeela iritzita. 2025eko urrian, Herbehereetako Auzitegi Gorenak etete horren baliozkotasuna berretsi zuen, Exekutiboak lizentziak berriz ebaluatzen zituen bitartean; beraz, debekuak indarrean jarraitzen du de facto
- **Alemania:** 2025eko abuztuaren 8an, Alemaniako gobernuak iragarri zuen, "berriro abisatu arte", ez duela baimenduko Gazako Zerrendan erabil daitezkeen armamentu esportazio berririk, Israelgo gobernuaren Gazako Zerrendako plan militarrei erantzunez.
- **Italia:** 2023ko urriaren 7tik, Italiako Gobernuak bertan behera utzi zuen Israelera armak esportatzeko lizentzia berrien emakida. Neurriak ez die eragiten data hori baino lehenagoko kontratuei, zeinak kasuz kasu berrikusten baitira nazioarteko zuzenbide humanitarioa betetzen dela ziurtatzeko.

Herrialde bakoitzeko zehapen zehatzak berrikusi beharko dira, eta horien arabera jokatu:

- Zehapenek produktuak esportatzea debekatzen badute, erabilera bikoitzekoak izan edo ez, debekatuta egongo da horien salmenta, eta erabilera bikoitzeko esportazio-lizentzia argitaratu aurretik eskatu bada, ukatu egingo da.
- Zehapenek produktuaren sailkapenaren arabera esportazioa murrizten badute, murrizketan sartuta dagoen produktua honako hau den berrikusi beharko da:
 - edo industrial (defentsarako materiala edo erabilera bikoitzekoa ez dena): esportatzaileak baimena eskatu beharko dio agintari eskudunari. [Prozeduraren xehetasuna](#)
 - edo erabilera bikoitzeko materiala: esportatzaileak esportazio-lizentzia eskatu beharko du.
- Industria-produktu hori murrizketen artean ez badago, komeni da egiaztapenak egiten jarraitzea.



5- Produktuaren erabileraren eta amaierako erabiltzailearen egiaztapena

Esportatzaileak arduratu behar du produktuaren erabileraz eta amaierako erabiltzaileaz (horrek ez du zertan bat etorri bezeroarekin). Informazioa bildu beharko du, eta, ahal den heinean, azterketa bat egin, honako hauek eragozteko: produktu zibilak armamentu-sistemetan integratzea, giza-eskubideak urratzeko edo barne-errepresiorako erabiltzea, armen programetan erabiltzea — nuklearrak, kimikoak edo biologikoak—, etab.

Besteak beste, gomendagarria litzateke egiaztatzea amaierako erabiltzailea enpresa pribatua edo estatuko erakundea den, lotura militarra edo gobernuak dituen, jarduera-esparrua (militarra, defentsa, energia nuklearra, zaintza, etab.), zehapenak edo murriztapenak dituen, etab. Aurreko atalean aipatutako webguneak —<https://www.sanctionsmap.eu/#/main>— zehatutako pertsona fisiko edo juridikoen inguruan ere ematen du informazioa.

Esportatuko den produktuaren kontrola egiten bada, esportatzaileak bezeroari jatorrizko «Azken Helmugaren adierazpena» (EUU - End User Undertaking) eskatu beharko dio, azken erabiltzaileak eskuz behar bezala betea eta sinatua.

Era berean, gomendagarria litzateke bezeroari dokumentu hau betetzea eskatzeko beharra ebaluatzea, nahiz eta produktua eranskinean jasota ez egon, esportatzaileak emandako informazioaren berrespen formala izan dezan.

DUDean adierazitako erabilera-egiaztapenak egitean produktuaren erabilera erabilera militarra izango dela adierazten bada, produktua defentsarako material gisa sartuta dagoen ala ez egiaztatu beharko da.

- Baiezkoa bada, defentsarako materiala esportatzeko lizentzia eskatu beharko du.
- Ezezkoa bada, egiaztapenak egiten jarraitu beharko du.



6- *Catch-all* Klausularen egiaztapena

Catch-all izenarekin ezagututako klausula mekanismo legala da, 2021/821 Erregelamenduaren (EB) 4. artikuluan jasoa, eta esportatzailea esportazio-lizentzia eskatzera behartzen du, nahiz eta produktua ez egon jasota I. eranskineko erabilera bikoitzeko kontrolaren zerrendan, jarduera jakin batzuetan erabilia izango dela erakusten duten adierazgarriak daudenean.

Horrela, ulertzen da produktu horien esportazioaren kontrola egingo dela autoritate eskudunak eskatzen duenean edo esportatzaileak badakienean erabilera bikoitzeko produktuak guztiz edo neurri batean erabilera hauetara bideratuta daudela:

- arma kimikoen, biologikoen edo nuklearren edo lehertzeko beste gailu nuklear batzuen garapena, ekoizpena, maneiua, funtzionamendua, mantenua, biltegitratzea, detekzioa, identifikazioa edo hedapena; armak garraiatzeko gai diren misilen garapena, ekoizpena, mantenua edo biltegitratzea;
- azken erabilera militarra, eta herrialde eroslea edo xede-herrialdea arma-blokeo baten mende badago (egin beharko dira bi betekizunak).
- estatu kide baten lurraldetik esportatu den eta defentsa-materialaren estatuko zerrendan zerrendatuta dagoen defentsa-materialaren osagarri moduan erabiltzea, estatu kide horretako barruko legeriari jarraikiz baimenik gabe edo nahitaezko baimena urratuta esportatu bada.

Era berean, 4. artikulua berariaz adierazten du esportatzaile batek jakiten duenean esportaziorako proposatutako erabilera bikoitzeko produktuak, I. eranskineko zerrendan ez daudenak, artikulua honetako 1. paragrafoan aurreikusitako erabileretarako direla, osorik edo zati batean, horren berri emango diola agintaritza eskudunari. Azken horrek erabakiko du esportazio hori baimendu behar den ala ez.

Azkenik, estatu kide batek I. eranskinean aipatzen ez diren erabilera bikoitzeko produktu batzuk esportatzeko baimen-baldintza bat ezartzen duen legeria nazional bat onartu edo mantendu ahal izango du, baldin eta esportatzaileak arrazoiak baditu produktu horiek artikulua honen 1. paragrafoan aipatzen diren erabileretarako erabiltzen direla edo erabil daitezkeela susmatzeko. Horregatik guztiagatik, azken puntu gisa, komeni da abenduaren 28ko 53/2007 Legea berrikustea, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritza kontrolatzeari buruzkoa (<https://www.boe.es/eli/es/l/2007/12/28/53/con>).



7- Esportazioaren kudeaketa

Behin eragiketaren alderdi esanguratsuei buruzko egiaztapenak eginda, enpresa prest egongo da esportazioan produktuaren kontrola egingo den ala ez jakiteko.

Hortaz, alternatiba bat edo bestea honela kudeatu beharko du:

- a) Produktuaren kontrola egin behar bada:
 - enpresak erabilera bikoitzeko esportazioaren lizentzia eskatu beharko du.
 - produktua industrial bada, enpresak administrazio-baimena eskatu beharko du Europar Batasuneko murrizketengatik.
 - produktua defentsarako materiala bada, enpresak defentsarako esportazio-lizentzia eskatu beharko du.
- b) EZ bada produktuaren kontrola egin behar, baina haren muga-zergen sailkapenean l. eranskinean jasota dagoen adierazgarriak daudenean:
 - beharrezkoa izango da enpresa esportatzaileak esportazio-aduanari bideratutako gutun bat idaztea, adieraziz produktua ebaluatua izan dela eta ez dagoela jasota l. eranskinean, esportazio-aduanak baimendu dezan EBtik ateratzea.
 - garrantzitsua da enpresak egindako azterketaren justifikazio-dokumentu guztiak jasotzea, etorkizuneko ikuskapen posibleetarako.



8- Erabilera bikoitzeko esportazioaren lizentzia eskatzea

Erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologia lekuz aldatzeko lizentzia eskatu aurretik, esportatzaileak inskribatua egon beharko du Kanpo merkataritzako operadoreen erregistro berezian (REOCE), kontrolatutako produktuen enpresa esportatzaile moduan.

Behin REOCEn alta emanda egonez gero, esportatzaileak aukera du lizentzia eskatzeari ekiteko. Eskabidea bide telematikoz aurkeztu da, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez ([Hasiera - MINECO - Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioaren egoitza elektronikoa](#)). Ziurtagiri elektronikoa behar da.

Hala ere, 2026ko urtarritetik, aldi berean eska daiteke REOCEn izena ematea eta lizentzia-eskaera izapide honen bidez: Lizentzia-eskaera REOCerik gabe.

Lizentzia ohikoena indibiduala da, nahiz eta badauden lizentzia orokorrak eta proiektu handien lizentziak ere.

Baliteke eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa aldatzea, baina orokorrean honako hau izaten da:

- I. eranskinaren arabera behar bezala kategorizatutako produktuaren fitxa
- Produktuaren fitxa teknikoa
- Kontratua, eskaera edo proformako faktura
- Azken helmugaren adierazpena (EUU)
- Bezeroaren, amaierako erabiltzailearen edo norakoaren informazioa

Azken helmugaren adierazpena amaierako hartzaileak igortzen du eta jatorrizkoa aurkeztu behar da, eskuz egindako sinadura barne. Azken helmugako adierazpenetan idatziz jasoko da produktua edo teknologia helmugako herrialdean inportatzeko edo sartzeko konpromisoa eta adierazitako xede-erabileran aplikatzekoa, baita autoritate eskudunen aurretiko baimen idatzirik gabe berriro ez esportatzeko edo berriro ez igortzeko konpromisoa ere. Kasu batzuetan, adibidez, produktu kimiko jakin batzuen transferentzietan, azken helmugako adierazpena produktuen helmugako estatuaren autoritateek ikus-onetsi beharko dute.

Erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien materiala esportatzea baimentzeaz (edo ukatzeaz) arduratzen den kide anitzeko organoa honako hau da: Erabilera bikoitzeko materialen kanpo merkataritza arautzeko ministerioarteko batzordea (JIMDDU). Informazio gehigarria edo argibide teknikoak eskatu ditzakete. Baliteke ebazpenaren epea aldatzea, kontuan izanda lehenengo lantalde bat pasatzen dela, eta ondoren JIMDUU batzordean onartzen dela —horiek hilabetean behin biltzen dira, gutxi gorabehera—.

Lizentzia indibidual baten ohiko epea 12 hilabetekoa da. Gehienez bi zuzenketa eskatu ahal izango dira, eta baliozkotasun-datarekin edo balio monetarioarekin bakarrik izango dute lotura. Beste alderdiren bat aldatu behar izanez gero, beste lizentzia bat eskatu beharko litzateke.



Baimenen edo lizentzien titularrak eragiketetako dokumentu guztiak gorde beharko ditu.

9- Kontuan izan beharreko beste alderdi batzuk

Enpresak esportatzeko lizentzia badu ere, produktua esportatu aurretik kontuan izan beharreko hainbat alderdi daude, albokoak edo osagarriak. Jarraian esanguratsuenak adieraziko dira:

- Logistika- edo garraio-arazoak: Aintzat hartu beharko da balitekeela merkantzia jakin batzuk onartzen dituzten edo nazioarteko helmuga jakin batzuetara bidaiatzen duten nahikoa garraiolari espezializatu ez egotea. Gainera, litekeena da herrialde batzuetan pasatzeko edo gainetik hegan egiteko debekuak egotea.
- Arriskua eragiketaren kobrantzan: Baliteke ezinezkoa izatea transferentziak egitea edo jasotzea, nazioarteko finantza-zehapenak direla medio, helmugako herrialdeko banku jakin batzuen nazioarteko blokeoengatik, esaterako. Kontuan izan beharko da helmugako herrialdearen ezegonkortasun politikoa edo ekonomikoa; izan ere, baliteke barruko gatazkek (estatu-kolpea, debaluazioa, kapitalaren kontrola, gobernuaren nazionalizazioak edo interbentzioak, etab.) kontratua betetzeari eta eragiketaren kobrantzari eragitea.
- Herrialde inportatzailearen irizpideak: Herrialde inportatzaileak inportatzaileari berariazko dokumentuak edo baimenak eska diezazkioke azken horrek produktua herrialdean sar dezan, eta baliteke inportazioan debekuak egotea.

Horregatik guztiagatik, gomendagarria da enpresak berariazko prozedura bat izatea kontrola izan dezaketen produktuak esportatzeko, eta hor sartu beharko dira zuzenean esportazio-eragiketarekin lotutako sailak (logistikoa, administratiboa, etab.), finantzarioaz eta komertzialaz gain. Prozedura horrek lagunduko du hainbat arazo ekiditen: aduanako atxikipenak, gailak, kontratuaren ez-betetzeak, zigorrak atzeratzeagatik, etab.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Urkixo zumarkalea, 36-5. Solairua. Bizkaia Plaza eraikina
48011 Bilbo info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60